

Mondragon Unibertsitateak eta Laboral Kutxak ikasketak finantzatzen lagunduko diete ikasleei

2014/10/10

Mondragon Unibertsitateak eta Laboral Kutxak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean, zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei ikasketak ordaintzen laguntzeko.

Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademiko Jon Altunak eta Laboral Kutxako Negozio Garapenaren Areako zuzendari Xabier Egibarrek sinatutako hitzarmenaren helburua honako hau da: Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Enpresagintza Fakultateak, Goi Mailako Eskola Politeknikoak eta Gastronomia Zientzien Fakultateak eskainitako goi-mailako unibertsitate-ikasketak lehentasunezko baldintzetan finantzatzea.

Hitzarmenaren arabera, Mondragon Unibertsitateko ikasleei baldintza bereziak jarriko zaizkie –interesa tasa egokiak eta komisiorik gabe– ikasturtearen kostua finantzatzeko, matrikula, mantentzea, garraioa eta materiala barne hartuta, baita nazioarteko mugikortasuna ere, Erasmus edo bestelako programen bidez.

Era berean, Mondragon Unibertsitateko ikasleek berme pertsonaleko mailegu bat eskuratu ahaliko dute ikasi nahi duten graduaren, masterraren edo doktoretzaren kostuari aurre egiteko.

Bi erakundeen arteko hitzarmenak urtebeteko indarraldia izango du – 2015eko irailaren 15era arte –, baina luzatzeko aukera zabalik utzi dute.

